



## COVID-19 kasuen kudeaketa protokoloa Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

### COVID-19 kasuen kudeaketa protokoloa

Protokolo hau idatzi eta aurrera eramateko Erronkari zein Zaraitzu Ibarretako Osasun Oinarrizko Zonaldeen Lehen Mailako Arreta Taldeekin elkar lan hestuan aritu eta arituko gara, Nafarroako Osasun Publiko eta Lan Osasunaren Institutuaren gainbegirapean. Talde desberdinen, eski-taldeen, ikasle zein irakasleen ostatueta zein autobusetako banaketaren,... kontrol zorrotza eramango da, eta Eski Kanpainako pertsona arduradunak ikastetxe bakoitzari kontaktu estu izan daitezkeen taldeen informazioa helaraziko die COVID kasu posible baten aurrean jarraipena eta kudeaketa arina izan dadin.

**Partehartze baldintzen, informazioa eman beharraren, informazioa jaso izanaren ondorengo baimenaren, PCR proba egiteko baimenaren eta 2022 Ipar Eskiko Eskola Kanpainan parte hartzeko baimenaren onarpen dokumentua ikastetxeen bidez bidaliko da familiek sina ditzaten.**

#### 1. Partehartzaileek ez dute Eski Kanpainara joan behar baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

- ❄ COVID-arekin bateragarria den edozein sintoma badago, diagnostikatu izan ala ez.
- ❄ COVID diagnostikoa badago.
- ❄ Berrogeialdia egiteko agindua jaso bada.

#### 2. Definizioak

- ❄ **Kasu susmagarria:** kuadro kliniko hau duen Kanpainako edozein partehartzaile edo langile; arnas infekzio akutua (handia), bat-batean agertua, edozein larritasunetakoa eta eragiten diona, besteak beste, sukarra, eztula edo aire falta. Beste sintoma batzuk ere – hala nola odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako mina, beherakoak, bularraldeko mina edo zefaleak – har daitezke SARS-CoV-2ak eragindako infekzioa duela susmatzeko zantzutat, irizpide klinikoaren arabera.
- ❄ **Infekzio aktiboarekin baieztatutako kasua:** kasu susmagarrien irizpide kliniko bat betetzen duen pertsona, eta PCR edo antígeno positiboa duena.
- ❄ **Infekzio aktibo posiblea:** kasu susmagarrien irizpide kliniko bat bete, eta antígeno frogak negatiboak izan arren, medikuak sintoma horien jatorria argi ez ikustean koronabirusak eragindako infekzio posiblea izan dezakeen pertsona.
- ❄ **Kontaktu estua:**
  - Kontaktu estuz hartuko da edozein partehartzaile egon dena 15 minutuz baino gehiagoz maskararen erabilera egokia egin gabe edo bi metro baino gutxiagoko distantziara infekzio aktiboarekin baieztatutako kasu batengandik edo medikuaren iritziz infekzio aktibo posiblea izan daitezkeen kasu batengandik. **Beraz, logela berean lo egiten duten eta otorduetan mahai berean esertzen diren partehartzaileak kontaktu estu izanen dira.** Eski Kanpainatik espazioen antolakuntzak ondoriozta



## COVID-19 kasuen kudeaketa protokoloa Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2022

ditzakeen kontaktu hestu kopurua gehienez 8 pertsonetako izanen dela bermatuko da.

### 3. Kasuen kudeaketa

Gaur egungo testuinguruan, kasuen detekzio goiztiarra eta haien bakartzea, bai eta kontaktu estuena ere, segurtasun-inguruneari eusteko neurririk garrantzitsuenetarikoa da.

#### ❄️ **Partehartzaile batek Eski Kanpainan COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak baditu:**

- Osasun Etxean hitz ordua hartu eta bertan **ANTIGENO FROGA** eta beharrezko azterketa eginen zaio sintoma horien jatorria zein izan daitekeen zehazteko.
- **Infekzio aktiboarekin baieztatutako kasua bada, edo infekzio aktibo posiblea bada**, partehartzaile horri FFP2 musuko bat emanen zaio eta ostatuan egoera horretarako prest izanen duten gelara eramanen da. Gela horrek aireztapen egokia izan behar du.
- Irakasle arduradunak familiakoei edo legezko tutoreei abisua emanen die, ahal den azkarren kotxez etor daitezten. Familia edo legezko tutoreek Eski Kanpainak irauten duen bitartean erraz aurkitzeko moduan egon beharko dute.
- **Lehen hezkuntzako ikasleek ez dute berrogeialdirik egingo, ez bada ikasgela berean gutxienez bost positibo daudela edo zazpi eguneko edo gutxiagoko epean ikasleen %20 positibo izan dela.**
- Eski Kanpainako zuzendaritzatik, Eski Kanpainako kontaktu estuen zerrenda emanen zaie jarraipen-taldeak eginen duen kudeaketa errazteko. Asteazkera zehar kasu egiaztaturen bat detektatu bada, ikastetxeetako COVID arduradunen bitartez, kasu horren kontaktu hestuen senide eta legezko tutoreei jakinaren ganean jarriko zaie azken kontaktuaren ondorengo hamar egunetan kontu handiz ibiltzeko eta giza-harremanak ahal den gehien murrizteko, indarrean dagoen legediaren arabera musukoa etengabe erabiliz. Bereziki, pertsona kalteberetikiko kontaktua sahiestu behar da. Era berean, sintoma bateragarriak azaltzen direnean, ikastetxera ez joateko eta osasun-sistemarekin harremanetan jartzeko esanen zaie.
- **Hezkuntza bereziko partehartzaileak kalteberatzat hartuko dira eta osasun sistemaren jarraipen aktiboa izanen dute.**
- Soilik **ANTIGENO FROGA** eginen zaie kaltebera diren kontaktu hestuei.
- **Antigeno froga negatiboa bada eta medikuek garbi ikusten badute zein izan daitekeen sintoma horien jatorria**, Eski Kanpainan jarraitzeko erabakia mediku, irakasle arduradun eta familiaren artean hartuko da.

#### ❄️ **Kanpainako langileen kasuak kudeatzea**

Kasu hauen kudeaketa partehartzaileenaren antzekoa izango da. Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio. Kontaktua estuen agerpena minimizatuko da, prebentzio-neurrien bidez: aireztapen natural iraunkorra eta gurutzatua ziurtatu, eta aire zabaleko jardueri lehentasuna ematea, musukoa behar bezala erabiltzen dela bermatzea (eta behar bezala doituta) eta eskuen higiegi egokia egitea.



### IZEN-EMATE KUOTEN ITZULERA

- ❄️ Parte hartzailearen batek, arrazoi justifikatu batengatik, parte hartu ezin izango balu, ikastetxeak arrazoi hauen berri eman beharko dio kanpainako zuzendaritzari, izan-emate kuota berreskuratzeko eskubidea izateko. Aurreinskripzioan ordaindutako 20 €-ak ez dira itzuliko.
- ❄️ Izen-ematearen ondoren eta parte hartu aurretik **bajaldiren bat** baldin badago ikastetxeak ikasleari egokitutako **disziplinazko espediente batengatik**, eta kanpainako zuzendaritzarekin adostu ondoren, ikasle horri izen-ematearen %50a itzuliko zaio.
- ❄️ COVID-19 -aren ondorioz txandaren bat bertan behera geratuz gero, txanda horretako partehartzaileei ordaindutako guztia itzuliko zaie.
- ❄️ Partehartzailearen batek, behin Erronkaribarrean edo Zaraitzu Ibarrean egonda, jarduera utzi eta etxera joan behar bada, gaixotasuna dela, lesio bat dela, infekzio aktiboarekin baieztatutako kasua dela, medikuaren iritziz infekzio aktibo posiblea dela eta infekzio aktiboarekin baieztatutako kasu baten kontaktu estua bada, **ez da izen-emate kuota itzuliko**